

gaurko filmak

Cateto a babor ●
Zuz: Ramón Fernández. 93 m. Esp. 1969. **11:00 La2**

Más allá del Missouri ★★
Zuz: W.A. Wellman. 78 m. AEB. 1951. **18:25 ETB2**

Urban Legend 2: coup de grâce ★
Zuz: John Ottman. 95 m. AEB. 2000. **21:00 C+(f)**

Mulholland Falls ★★★
Zuz: Lee Tamahori. 107 m. AEB. 1996. **21:55 ETB2**

Superdetective en Hollywood ★★
Zuz: Martin Brest. 103 m. AEB. 1984. **22:00 T5**

Los Otros ★★★★★
Zuz: A. Amenabar. 115 m. AEB. 2001. **22:00 C+(e)**

Vengo ★★
Zuz: Tony Gatlif. 83 m. Esp./Fran. 2000. **23:15 La2**

Matrimonio a corto plazo ★★
Zuz: Rocky Collins. 101 m. AEB. 1998. **00:00 ETB2**

El poder del Islam ★
Zuz: Simon Wincer. 103 m. AEB. 1998. **00:15 T5**

Une question de vie ou de... ★★★★★
Zuz: Powell/Pressburger. 100 m. EB.1946 **00:25 Arte**

Egundoko tren lapurketa ★★
Zuz: M. Crichton. 105 m. AEB. 1979. **02:10 ETB1**

Mi hermana Elena ★★
Zuz: Richard Quine. 103 m. AEB. 1955. **01:50 La2**

Proyecto Medusa (II) ★
Zuz: Larry Shaw. 85 m. AEB. 1997. **02:30 La2**

Querer Volar ★★
Zuz: Nichel/Manuli. 91 m. Ital. 1992. **03:35 La2**

●	★	★★	★★★	★★★★	★★★★★
Txarra	Eskasa	Balekoa	Ona	Bikaina	

MULLHOLLAND FALLS

★★★ ETB2 - 21:55

Zuz.: Lee Tamahori. Akt.: Nick Nolte, Melanie Griffith, Chazz Palminteri. 107 min. 1996.
Bere arima maori independentea Hollywoodi saldu eta *Along Came a Spider* eta *Die Another Day* gisako film komertzial arruntak egin aurretik, zinemagile interesgarria izan zen Lee Tamahori. *Once Were Warriors* aparta da horren lekuko argia. Nolanahi ere, *Mulholland Falls* fina zuzendu zuen sasoian, ez zen oraindik bere talentuarenugarra erabat amatatu. Los Angeles, 1956. Maxek eta bere lagunek polizia talde berezi bat osatzen dute. Gaizkileen metodo berberak erabiltzeko askatasun osoa baitute krimenaren aurkako borrokan. Prosti-



Kim hunter eta David Niven.

Irudimentsua, gazi-geza, erromantikoa... ederra!

UNE QUESTION DE VIEU OU DE MORT ★★★★★ **Arte-00:25**
Zuz: M. Powell, Emeric Pressburger. Akt.: David Niven, Kim Hunter. 100 min. EB. 1946.

London Films utzi eta gero, The Archers zinema-rako produkzio etxe independentea sortu zuten Michael Powell eta Emeric Pressburgerrek euren gustuko filmak egiteko. Elkarrekin, *Forty-Ninth Parallel*, *The Life and Death of Colonel Blimp*, *Black Narcissus* eta *The Red Shoes* maisulan ederrak zuzendu zituzten. Aipatu sasoi oparoan filmatutako harribitxi benetakoa da *A Matter of Life and Death*. Bere hegazkinarekin erortzeaz dela, RAFeko pilotu Peter Carterrek June aire-kontrolatzaile estatubatuarrekin hitz egitea lortuko du. Sinestezina dirudien arren, ezbehar latz horretatik bizirik irtengo da gaztea. Gainera, June atsegina ezagutu eta hartaz maiteminduko da. Zeruko burokrazia grisak, ostera, ezbeharrean pilotuak hil behar zuela aurreikusita zuen, eta haren auzia epaitegi zerutiarraren esku utziko du. Ironia sotilari muzin egiten ez dion arren, fantasia irudimentsuz zipriztindutako drama erromantiko xarmagarria da. Ezinbestekoa.

tuta baten hilketa ilunak Etxe Zuriaren atariraino iristen den ustelkeria kasu zikin bat agerian utziko du. Aktore talde aparta bildu zuen Tamahorik zinema beltz onenaren iturrietatik edaten duen *thriller* makur honetan. Ez ezazue galdu, arren.

LOS OTROS ★★★★★ **C+(e) - 22:00**

Zuz.: A. Amenabar. Akt.: Nicole Kidman, Fionnula Flanagan, Alakina Mann. 115 min. 2001
Alejandro Amenabar zinemagile gaztearen filmik biribilena da, ezbairik gabe. Jersey uharteko jauregi ilun eta bakarti batean bizi da Grace ederra,

Iñaki Lazkano

Anne eta Nicholas seme-alaba gaztetxoekin. Argiak hurrei kalte egiten dienez gero, iluntasun osoan bizi dira. Ez daude horren bakar, baina. *Besteak* ere jauregian baitaude. Amaierak *The Sixth Sense* gogora dakarren arren, Hitchcocken *Rebeca* eta Cukorren *Gaslight* klasikoak hartzen ditu eredu Amenabarrek, beldurra, suspensea eta drama fin-tasunez uztartzen dituen film aparta honetan. Nicole Kidmanen interpretazio gogoangarria eta Javier Agirresaroberen argazki iradokitzailea dira filmeko gauzarik azpimarragarrienak. Maisulan bat ia-ia.

VENGO ★★ **La2 - 23:15**

Zuz.: Tony Gatlif. Akt.: Antonio Canales, Antonio Pérez Dechent. 83 min. Esp-Fran. 2000.
Alkoholean eta musika flamenkoan hondoratzen du bere bihotz urratua Caco ijitoak. Iloba paraplegikoaren adiskidetasunak leuntzen du bere samina. Mendekuak, baina, bortizki kolpatuko du euren patua. Ijitoen kultura eta bizitza-filosofia samurtasunez —topikoetatik urrun— islatzen duen drama txukuna da. Tomatitok Cesar saria jaso zuen filmeko soinu bandaren egilekide gisa.

MI HERMANA ELENA ★★ ★ **La2 - 01:50**

Zuz.: Richard Quine. Akt.: Jack Lemmon, Janet Leigh, Betty Garret. 103 min. AEB. 1955.
Komedia musikal atsegin eta entretenigarria oso. *Gag* gatzdunetz jositako gidoi irudimentsua Blake Edwards ironikoarena da. Huts ezineko zita Lemonzale sutsuenentzat.

ETB-1

06:55: Tik tak circus.
07:25: Betizu.
09:00: Betizu taldea.
09:35: E-klise@.
09:55: Bidaide.
10:50: Travel notes.
11:15: Firin Faran.
12:15: Basamortuan itsaspen-eskaladan.
12:40: Atlas mendietako aita maitekorrak.
13:35: Betizu.
14:00: Gaur egun. Albistegia.
14:45: Postdata.
14:50: Gaur egun elkarrizketa. Gonbidatua: Oscar Goñi.
15:25: Goenkale.
16:00: Bidaide.
17:00: Ikusgela.
17:40: E-klipse@.
18:00: Iparraldearen orena.
18:05: Tik tak circus.
18:10: Betizu. Katutxakur. Doraemon, katu kosmikoa. Betizuzenean. Shin Chan. Betizu taldea.
20:28: Gaur egun. Albistegia.
21:05: Bertatik bertara.
21:45: Goenkale.
22:30: Pilota: Eskuz Binaka. Titin III - Goñi III / Olaizola I - P. Ruiz.
23:50: Postdata.
23:55: Boxeoa.
01:25: E-klipse@.
02:10: Zinema.
Egundoko tren lapurketa
Zuz.: Michael Crichton. Akt.: Sean Connery, Donald Sutherland. 1979.
04:00: Bertatik bertara.
04:35: Gaur egun elkarrizketa.
05:05: Esanak esan.
05:35: 1 bitan.
06:20: Herri musika sorta.
06:35: Ikusgela.

ETB-2

07:00: Sustraia.
07:25: Del pais de los vascos.
07:55: Clasicos en serie.
09:25: Forum. Gonbidatuak: Miguel Gonzalez eta Jorge Pla.
10:00: El punto. Gonbidatua: Joaquin Perea.
10:30: Pacific Blue.
12:10: La cocina de Pedro Subijana.
12:25: Doc.
13:30: Euskadi directo. (EAE) Navarra directo. (Nafarroan).
13:55: Date el bote.
14:58: Teleberri. Albistegia.
15:45: Lo que faltaba.
18:25: Zinema.
Mas alla del Missouri
Zuz.: William A. Wellman. Akt.: Clark Gable, Ricardo Montalban. 1951.
20:00: Esta es mi gente.
20:58: Teleberri.
21:55: Zinema.
Mulholland falls
Zuz.: Lee Tamahori. Akt.: Nick Nolte, Melanie Griffith. 1996.
00:00: Zinema
Matrimonio a corto plazo
Zuz.: Rocky Collins. Akt.: Christy Baron, Neil Maffin. 1998.
02:20: Harry Enfield y su amigos.
03:45: Esta es mi gente.
04:40: Lo que faltaba.

TVE1

06:00: Canal 24 horas. Albistegia.
07:30: Telediario matinal. (09:30) Los desayunos de TVE. Gonbidatua: Luisa Fernanda Rudi.
10:15: Saber vivir.
11:00: Por la mañana. *Asi son las cosas.* *La cocina de Karlos Argiñano.*
14:00: Informativo territorial.
14:30: Corazon de otoño. Anne Igartiburuk aurkeztutakoa magazina.
15:00: Telediario 1. Albistegia.
15:55: Eguraldia.
16:00: Geminis. Telesaila.
16:45: Secreto de amor. Telesaila.
17:50: Cerca de ti. Magazina.
18:50: El rival mas debil. Lehiaketa.
20:00: Gente. Pepa Buenok eta Sonia Ferrerrek aurkeztutako magazina.
21:00: Telediario - 2. Albistegia.
21:55: Eguraldia.
22:00: Cruz y raya.com III.
23:00: Esta es mi historia.
02:00: Telediario-3. Albistegia.
02:30: Zinema.
Proyecto medusa (II)
Zuz.: Larry Shaw. Akt.: Vincent Spand, Lori Loughlin. 1997.
04:00: Canal 24 horas.

A3

07:00: Buenos días, España. (08:15) Beyblade. (09:15) El primer cafe.
10:30: A plena luz. Pedro Piqueras eta Yolanda Alzolak aurkeztutako magazin saioa.
13:25: Ahora express.
13:55: Informativos territoriales. Albistegia.
14:30: Los Simpson. Marrazki bizidunak.
15:00: Antena 3 Noticias 1. Albistegia.
16:00: Sabor a ti. Ana Rosa Quintanak aurkeztutako saioa.
19:00: El diario de Patricia. Patricia Gaztañagak aurkeztutako saioa.
20:00: Pasapalabra. Lehiaketa.
21:00: Antena 3 Noticias 2. Albistegia.
22:00: Menudas estrellas. Alonso Caparrosek aurkeztutako saioa.
01:00: Alerta 112. Esther Malagonek aurkeztutako saioa.
02:00: Antena 3. Noticias 3. Albistegia.
02:30: The pretenders. Telesaila.
03:25: Televenta.
05:15: Hermanos de leche. Telesaila.
06:15: A3 N24. Canal noticias. Albistebia.

irratia



RADIO EUSKADI. BNG alderdiko Anxo Quintana elkarrizketatuko du gaur goizean Pedro Garcia Larraganek. Al-mudena Cachok gidatzen duen *Boulevard magazine* saio-an, bestalde, hiesaz hitz egingo dute Itxarobide elkarte-ko Udariaga Garcia Uriberekin. Bestalde, Victor Muñoz Baiges Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea bioetikaz ariko da. Unitate mugikorra Hernaniko Txillida Lekura joango da, artea neska-mutikoei gerturatzeko ekimenaren berri ematera. Arratsaldeko 17:00etan, *La jungla sonora* saioan, Nada Surf talde estatubatuarra gonbidatuko dute. Goizaldeko 01:00ean, *La otra dimensión* saioan,

banpirismoari buruz hitz egingo dute Luis Garcia Chapin ikertzailearekin.

EUSKADI IRRATIA. Ohiko lehiaketarekin hasiko dute 16:00etan *Lauretan babel* magazina. Ondoren, Iban Lopez moda aditua iritsiko da. 17:00etan, berri-z, Imanol Agirrek Euskal Herria, mendi, bidaia eta kultura aldizkari-berri emango du. Datorren urtean Kilometroak Lazkaon izango direla eta, Belen Maiza arduraduna elkarrizketatuko dute. 18:00 aldera, Pantxoa eta Pello eta Gatibu taldeko kideekin hitz egingo dute.